



**ESKATZAILEEN BATEZ BESTEKO NOTAREN NORMALIZAZIOAREN INGURUKO ARGIBIDEAK.**

Eskatzailearen espediente akademikoko batez besteko nota normalizatuari esleitutako puntuazioa deialdiaren 7.4 oinarrian ezarritako parametroen arabera kalkulatu da.

Abiapuntua eskatzailearen ikasketa espedientearen normalizazio koefizientea da, formula honen arabera egiten dena:

$\frac{(\text{Eskatzailearen\_BatezBestekoa} \times 10) - (\text{Titulazioaren\_BatezBestekoa} \times 10)}{\text{Titulazioko\_DesbEstand}}$	<i>Kalkulu hori egiteko behar diren datuak deialdiaren II. eranskinean daude argitaratuta.</i>
---	--

Eskatzailearen espediente akademikoaren batez besteko nota normalizatuari esleitutako puntuazioa (aurkeztutako gainerako merezimenduekin batera argitaratutako behin-behineko puntuazioa osatzen du) formula honen arabera kalkulatu da:

$=50 \times \frac{(\text{Geh\_NK}) - (\text{Eskatzailearen\_NK})}{(\text{Gutx\_NK}) - (\text{Geh\_NK})}$	<i>Deialdi honetan erabili diren gutxieneko eta gehieneko normalizazio-koefizienteak, balio baxu/altuenen %2,5 kendu ondoren, hurrenez hurren (oinarrietan zehazten den bezala), honako hauek izan dira:</i>  CN MIN: -0,7879 CN MAX: 2,8519
--	---

Kalkulu horiek egin ondoren, hautagaien gutxieneko eta gehieneko puntuazioa 0 eta 50 da, hurrenez hurren.

Beraz, nota altuenen %2,5 50 bihurtu da, eta beheko mailan geratu diren noten %2,5i 0 puntuazioa eman zaie, berriz ere oinarrien arabera. Gainerako bitarteko notak 0-50 bitarteko puntuazio bihurtu dira, adierazitako formula erabiliz.